

GORPU HILA

Iratxe Esnaola

Donostia, 17 urte

Ganduzko errealitate hutsal baten agerpena da hau; gure memoriak ikusi, prezio oso garestian ostatu eman eta gero baztertu egiten duen horietakoa.

New York izango da apika. Ez dio axola: apartamendu soil bat Igarobidean egurrezko ohol hautsiak daude elkarren alboan jarrita, bidaiariari oraindik horma bat direla esan nahiz. Amona bat ikusten da marmolezko lurrean itzalari itsatita. Goian, bonbila bat dantzan aire kirastuari, giro mantotuari, kolore lausotuari putz egin nahian, baina denboralaren erdian itotako itsasontziaren lanbide alferrikakoa aukeratua du. Argiaren mugimenduaren azpian, amona marmolezko lurrean aurrera doa pauso ttipiz maleta haundi bat arrastaka daramala. Ateraino iritsi da eta ireki ezinean: giltzak iraindu ditu.

Barruan babesa. Bere giroa. Bere maleta. Bera.

Arropak erantzi ditu eta ia bi metroko kutxa astuna konketaren azpian inpin du baldarki, egurrezko lurrean berunezko begirada zulatzen duen bitartean: zahartzaroaren nekea. Errealitatean zentratzeko bidean semaforoa gorri jarri zaiola sentitu du, eta taigabeko itsaron behar horretan gozamezez mukurua sentitu da gelan... errealitatetik at! Horretara laguntzen dute gainera horma mutuek

eta haien azalaren koloreek. Adierazpenik gabeko koloreak! Gizartetik aldentzen duen apartamentuan dago, non bere giroa, bere babesa eta bere maleta dituen. Apal bakaneko erlojua begiekin kausitu eta arindu egin da berantiarraren itzalak bere eginbehara kitatu aurretik estali ez dezan.

Beraz, bere apeta osoki asetzeko kutxara gerturatu da eta zabaldu egin du. Zabaldu egin du. Zabaldu. Ohe azpiko kakalardoek izuturik begiratu dituzte amonaren begiak, kutxa barnekoa ikusita bere aurpegia gozamenez mozorrotu denean. Amonari oharkabean igaro zaion koadro txiki bateko pertsonai irrifartsuak ere, ahoa ertsi du eta begiak itsi. Beldurra nagusitu zaie guzti hauei. Ez, beldurrik ez. Izura baizik.

Arrastaka atera du gorpu hila. Gorpu hila. Kutxa aldendu du eta ohe azpira bultza du, izan ere, oztopa egin dezake bere lanean. Gorputzaren gaztetasuna ferekatu du, baina, haatik, ez du bere soinean sentitu eta zahartzaroaren urrats geldiezinak ahantzi nahiz gogoa kontzentratzea erabaki du. Beharrezko materialea eskura jarri du: aizkora, aiztoa eta zerra bat. Gorpua konketaren azpian jarrita, ispiluari so egin dio ia nahigabe, inertziaz, hasera batean bere irudi lausotua ikusiz. Baina, ondoren ispilua opako bihurtzen joan zaio eta aldendu ezinezko irudi bat agertu da momenturo, hitz egi-ten hasi den arte...

“Begira nazan eta kontura hadi. Guztiz urdindutako ileek ematen diote hasera buru txiki horri, eta buru hori dun, hain zuzen, bizitzako hainbeste ger-

takari ahaztu arazten dizkinan gomuten aterpe eta desagertarazle. Nekez sines dezaken kopeta zimurtu eta goibel horren atzean, oraindik freskotasunez zipriz-tinduriko gogoetak badirela, zeren egon badaude, baina zokoren batean gordeta Sarritan, hik badakin, egun euritsueta, hire kolore gabeko begiak zimurren artetik esnatu, ialgi eta begira ipintzen ditunanean, euri tanta bakoitzeko gaztaroko oroitzapen bat berreskuratzen dun begietan nahigabe kolorea margotuz. Eta hori dun hire denborale bekaiztiaren jaioleku.

“Badakin, kontura hadi, baditun urte batzuk deusik entzuten ez dunala, eta hire buru barnean iraganeko erloju zaharraren orratzen norabideak eta joan etorriak nahiko zaizkin hire musika osatzeko. Doinu bekaiztia osatzeko”.

Bapatean, amonak, iraindu, listua bota eta hitzok zulatu ditu ispiluan, bere isla berriz antzeman arte. Azkenik, hura berriz ere. Bere kontzientzia izkutuak sarri bisitatzen du ispiluaren atzeko mundutik bidaiatuz, baina kontzientzia horri inozente-egi, herabetiegi deritzo. Horregaitik, bere buruko igarobide ilunenetan murgiltzen da berriz, kontzientiaren izara zuriak akorduaren txokoren batean tolestuta uztean.

Gaztearen gorputzari gaztetasuna dario eta amonaren hortz bakanez dardar egiten dute amorruez. Nahikoa da. Bada garaia lanean hasteko! – errepi-katu dio bere buruari. Gorpu hila lurrean eta aiz-toa eskuan duela... ZART! Golpe latz batek burua lepotik askatu du eta amona leher eginda utzi du.

Bere begi txikiak gozamen iturri dira eta hortik erortzen diren malkoak iturriaren tanta gozoak. Gorpu hilarekin dantzatu nahi izan du amultsuki, baina ezin: zahartzaroaren nekea beti present.

Gogo berdinez baina neke gehiagoz aizkora hartu eta gorpu hila begiratu du berriro. Hanka argal eta ilerik gabeetan erreparatu du. Hain txuriak dira oinetako behatz txiki horiek... Ezin du gehiago jasan eta zerra aukeratu du hurrengo pausoa aurrera eramateko. Material gogorregia iruditu zaio bere gustorako eta oraindik ageri ez diren odol putzuak desiratuko lituzke. Hanka bakoitza bestearengandik urruti ikustean ez zaio lehen bezain ederra iruditu.

Amona egongela erdian dago lurlean eserita. Aurrean gaztearen burua eta atzean hanka sakabatuak. Nekeak, izurrite batek hiri bat estali dezakeen bezala inguratu, eta izurriteak sortarazten duen neke berbera ialgi da harengan. Hala ere, garai latzenetan indar harrigarriak agertzen diren bezala, azken errezua egin eta labana hartu du eskuan.

Egongelan amona. Burua. Hankak. Labana. Gorpuak. Labanarekin gorputza moztu nahi dio, baina ezohizko mugimendu bati esker ispiluari so egin dio ia nahi gabe, inertziaz, hasera batean bere irudi lausotua ikusiz. Baina, ondoren ispilua opako bihurtzen joan zaio eta aldendu ezinezko irudi bat agertu da momenturo, berriro hitz egiten hasi den arte...

“Begira nazan eta kontura hadi! Hik badakin denborak, denboraren gatibu den denborak, osa-

tzen duela musika latzena. Hortaz kontura hadi garai batean maitasun fruitu hezeak izan ziren ezpainak, erabat zartaturik eta agorturik erakusten ditunala eta adinak sortutako lerro, marra paraleloan artetik, izkutatua dunan zera hori... hire ahoa dunala. Begira nazan, eta ohartu hadi burugogortasunak bultzatzen haunala hire memoriaren pantailan kiskalitako gomutak proiektatzera. Eta hik badakin hire oroimenaren pantaila ni neu naizela, hire ispilua, hire gogoeten proiektaleku. Begira nazan eta ohartu hadi inungo bizi arrastorik nabari ez zaion maldatsua dela hire bekokia..”

Amonak iraindu, listua bota eta begirada makurtu du... **MAKURTU ! Makurtu!** dio ahots sarkor batek udazken arratsalde hartatik. Destinuaren gorputza bere etxean kokatua dago egun hartan, amonaren senarra dena hilobiratzeko. Destinuaren aurrean senarrak duen arma bakarra bihotza, bestearena bala soil bat. Eta eszena guzti horretan bigarren mailako pertsonaia batek, amonak, garraisika dihardu... **MAKURTU!** Makurtu... Ondoren biak bat. Senarra destinu bihurtua; destina bala bihurtua. Eta amonak, ezbeharraren trantzean ez du iradokizunik egingo... ez. Plastikozko poltsa handi batez gorpua estali du... Plastikoa. Plastikoa! Plastikoa behar du apartamentuan bere giroa, bere babes lortzeko eta oroitzei kolorea kentzeko. Unaduraz josirik badago ere, poltsa bete behar du. Bete behar du... Hanka bat barrura eta bestea ere bai. Buruari azken begiratu... eta hain ederra da oraindik ere! Gorputza ere

bi besoen indar bakanez lurperatzen du, bukaerarik ez duela dirudien plastikozko kobazuloan.

Azken arnasaldi sakona gelan. Bi eskuek poltsa bizkarrera jaso dute, baina nahigabe, inertziatz, hase-ra batean bere irudi lausotua ikusi badu ere, ondoren opako bihurtu zaio eta irudi berbera agertu da. Kontzientzia izkutuak berriro bisitatu du...

“Begira nazan eta kontura hadi! Beti izan haiz emakume gogorra, ispiluan begiratu eta harro sentitzen hintzen, baina jadanik ispiluak ez din erantzunik eman nahi. Eragotzi egiten dinat; eragotzi egiten dinat hire gorputz biluztua. Lepoa, izan zenaz eta orain denaz lotsatua, aurpegiaren eta bularraren artean babesten da heriotzaren zain, eternitatearen parajeetako olatuetan isurtzeko. Amona, beti izan haiz horren ausarta... eta begira orain! Denboraren errotak ale guztiak xehatzen dituela sinistu behar... Gogoratzen? Hire ausardiak imagina ezinezko eremuak eskuratzen zizkinan garai batean, haren tinkotasunak arazo guztien aurrean fermo mantentzen hinduan. Eta orain? Eta orain? Orain, hire bularretako indar amaituak laztenen eske ari ditun maldan behera beste zimurrekin oztopatuz; beste zimurrekin nahastuz. Agortutako bi larrosa ditun ur berriaren eskean, eta aintzinean zila leunak eratu zuen errepide zuzenaren gainean, zila hori, orain mintz eta urte-en zamaren aterpea dun. Azken petaloak, azken malkoak isurtzen dizkin negarti.

Badakin, kontura hadi, hire aluak galduak dizkin txinpat eta suak, galduak betiko maitaleak, gal-

duak hileroko aldiak, galduak lizunkeriak. Badakin amona, zahartzaroaren haize boladak eraman din emakumearen altxor preziatuena ere. Begira hitzan hire iztar zimurtsuak. Alkarri begiratzen diote, bakoitzak bestearengan horrenbeste tolesdura ikustean, harrituta. Eta azkenik, amona, begira nazan, begira ezan hire gorputz ahuldua osoki, eta konturatuko haiz gorputz triste bat dunala aurrean, gorputz zahar bat dunala. Badakin, kontura hadi...”

Amonak, amorraturik, iraindu, listua bota eta ispilua hautsi nahi izan du. Baina barneko ahotsen batek galerazi dio. Kontzientziak aski ziur. Aztoraturik apartamenduko atea zabaldu eta arrapaladan atzean utzi ditu jadanik ustezkoak baka-rik diren babesak eta giroa. Pasabidea igaro behar gogoeten zama buruan eta poltsarena bizkarrean daramala. Bi pisu eta berrogei eskailera lehen solairuko tabernara eta kanpoko atera bidean. Bizkarrean dibertitzen diren izerdi tantak odol isuriak iruditu zaizkio. Odol putzuak; gorpu hilak amestu ditu. Hogeia. Hogeia eskailera faltan. Hamar. Hamar eskailera faltan eta tabernariaren ahotsa ezagutu du. Izerdia. Urduri ote dago? Zergatik egon behar du urduri?

Gorpu hila bizkarrean daramala zeharkatzen du taberna ia ustua. Tabernaria bertan da eta txoko ilun batean bi gizon solasean ari dira. Besterik ez dago. Hobe horrela, humanitateari kiratsa dario-pentsatzen du. Atea zabaltzen da eta amona eta poltsa desagertzen dira euri artean. Akortean baten

soinua entzuten da aberri urrunen bateko melodia herrikoiren bat oroitu nahian, eta horren ondoren zabartokian golpe hots bat. Golpe huts bat. Atea zabaltzen da berriz eta amona poltsarik gabe sartzen da.

Pauso ttipiz eskailerak igo ditu gorpu hilik gabe. Eta gorpu hilik gabe itxi du apartamenduko atea ere. Baina oraingoan ez da nahigabe gelditu ispi-luaren aurrean. Hankek eraman dute. Eta bere aurrean, ispilu aurrean, kontzientziaren aurrean, bere burua, bere izatea ahul, makal, zahar, triste, zatar, bakar, mehar, koldar, txiki, ezdeus kikil, biduin, ttipi, eskas sentitu du. Baina ez luzaroan ordea. Gaztetasuna gehiegi maitatzen du. Hainbeste aldiz desiratutako odol putzuak; gorputz hilak eskatzen dizkio buruak. Zahartzaroak gaztetasuna hil beharra dauka eta horren aurrean bere bere buruko igarobide ilunetan murgiltzen da berriz, kontzientziaren izara zuriak akorduaren txokoren batean tolesturik utziz. Tolesturik utziz.

* * *

Tabernako txokorik ilunenean bi itzal atzeman daitezke elkarrizketa lasaian. Kanpoan iluntzen ari du. Iluntzen. Euria ere ageri da. Eskaparteetako argiek, tantek laztan ditzaten onartzen dute, baina ondoren espaloi hotzetara kondentatzen dituzte. Euri tantak emagaldutzat hartzen ditu hiri osoak. Noizbehinkako gozamen ikutuak, soilik.

Jendea ez dabil presaka eta norabide gabe

mogitzen ditu zangoak bizitza urratuari aurrez-aurre begiratzeko indarrak gabe. Kale labur horretan aurkitzen den autoaren barruan bi ezezagun elkar ferekatzen ari dira, eta ziur aski kale kantoian ezagutuko zuten elkar orain hogeit hamar minuto. Kafe bat, auto bat, gezur batzuk eta geroarte bat. Besterik ez.

Eta kale kantoi berean dago kokaturik zabortokia, non zabor poltsa artean ez dagoen bereizketarik. Eta han, besteen artean dago amonaren poltsa ere, euriaren eraginez irekia ageri dena. Ikusten dira han manikiaren gorputz atal birrinduak, bai, baina horren araindi irakurtzen da zahartzaroaren oihu zirraragarria. Latzgarria.